# Bulegoen itxiera datak zehaztu dira



Joandako urtarrilean aurreratu genituen enpresaren planak 85 bulegoren itxiera aurrera eramateko, itxiera horien data zehaztear zegoen ordea.

Joan den asteartean berriz mahai gainean jarri dute bulego horien itxiera jasotzen duen zerrenda, data eta guzti.

Itxiera hauek lehenik eta behin bertan lan egiten duten lankideen “mugimendua” ekarriko dute beraien gertuko lan eremuan. Enpresaren asmoan dago maiatza bukaera edo ekainaren hasieran “soberan” dauden lankideen zenbatekoa zehaztea eta bai beraiei eta bai langileen ordezkariei jakineraztea.